


# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Musika kaxa.**  
Ain\_1.  
MusikHerria.  
Iraupena: 40'05".  
8 euro.

## Folka izan daiteke unibertsala eta apurtzailea

ARRASATEN sortutako boskote honek oso ibilbide berezia egin du orain arte: ez zuten kontzerturik egiteko asmorik, are gutxiago diskorik, baina kantak eta poesia interpretatu, emanaldiak egiten hasi, diskoa argitaratu eta orain geldi daude taldekide bat kanpoan dagoelako. Etiketatu gabeko folka egiten dutela esango nuke nik, runbatik, flamenkotik eta Balkanetako musikatik edaten duena; beraiek, baina, nahiago dute esatea zer-

bait intimista egiten dutela. Folka beraiek eraldatua eta interpretatuta, gaztea, bizi-bizia eta neurri batean apurtzailea ere bilaka daiteke. Diskoan *tempo*, giro eta melodia ugari daude; are gehiago, taldekide guztiek abestu eta errezitatzen dute, emaitza anitzagoa bilakatuz. Gitarra, kaxa, biolin eta ahotsarekin hamabi bidaia, sentimendu eta bizipen.

[www.myspace.com/ain1arrasate](http://www.myspace.com/ain1arrasate)

### Ain\_1

## «Takoiekin munduaren taupadei erritmoa jarritz gustatzen ez zaigunari aurre egiten diogu»

Ain\_1 hainbatek egiten duzue eta oso irekia dirudi... Ideia bat, melodia bat, hitz batzuk... dira beti osotasunaren jatorria eta oinarria. Horren bueltan osatzen dugu gainerako dena, eta esango genuke nahiko era irekian eta kreatiboan egiten dugula.

### Musika kaxek ez al dute bada beti doinu berbera?

Disko honetako kanta askok izaera ziklikoa dute, lau-zortzi akorderen bueltan egindako kantaren bariazioak. Ziklikotasun horretan sortutako kantek gogoratu ziguten musika kaxaren ideia. Hala ere, musika kaxak ez du beti soinu berbera; saio bakoitza berezia da. Ikusleei ere parte hartzea eskatzen diegu, eta horrek musika kaxa zabal-tze bakoitza bakar egiten du.

Kanta batzuetan, hain ohikoa ez den errezitatzea hautatu duzue...

Lehen saioa abesti batzuk jo eta



poema batzuk errezitatzeko asmoarekin egin genuen. Ordutik beti saiatzen gara testu errezitatuak sartzeko. Musika Kaxa da diskoko poema errezitatu bakarra, baina badira beste poema batzuk ere. Poesiak eskaintzen du gauzak zuzen eta hain argi ez esateko aukera, interpretatzera gonbidatuz.

Kaxa eta biolina. A ze bi instrumentu, eta zenbat bidaiarazten dituzten...

Ain\_1 izeneko bidaiaren taupadak eta olatu dantzaria dira bi hauek, hain zuzen.

### Ederra da Gaban arnasa kanta, eta are eta goxoagoa euskalkian...

Sehaska, maitasun, izarapeko kantez ez dute soinu bera batuan egiten badira. Goxogoxo belarrira xuxurlatzea beti da gozagarri, eta are gehiago norbere euskalkian.

### Beldurra nabari zaizue erraietatik ateratako abestia da?

Azken aldiko gertaeren aurrean batzuk zein urduri dauden ikusita, hemen gaudela esatea nahi genuen. Horrek eskatzen zuen jarrera indartsuagoa, beharbada ilunagoa. Guk jarrera flamenkoa deitu diegu, guk ere badakigulako takoiekin munduaren taupadei erritmoa jartzeko, bularraldea tente jarrita gustatzen ez zaigunari aurre egiten. ■

